



2018013CO300

Diputatuen Kontseiluak, 2018ko martxoaren 13an egindako batzaraldian, honako erabakia hartu du:

Gipuzkoako Foru Aldundiak Kudeaketa Plan Estrategikoa egin zuen 2015-2019 legealdi honen hasieran, haren gobernu-ekintzaren lidergorako tresna nagusi gisa sortutakoa. Plan horrek, alde batetik, plana ezartzeko behar den eraginkortasuna bermatzeko gobernantza mekanismoak ezartzen ditu, eta, bestetik, gobernantza sistemaren lehenetsutako ezaugarri gisa nabarmentzen du politika publikoen eta lurraldeko helburu kolektiboen arteko lotura.

Lurraldeko eta bere inguruko beste eragile eta pertsonekin eraiki eta partekatu behar dugun Gipuzkoa berri baten gainera etorkizuneko ikuspegia planteatzen da. Esparru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikiz ekimenari jarri du abian, helburutzat duena Gipuzkoak bere etorkizuneko erronkei aurre egiteko duen gaitasuna sendotzea.

Kudeaketa Plan Estrategikoari eta Etorkizuna Eraikiz ekimenari ekiteak eskatzen du harremana eta komunikazioa izatea lurraldeko herritarrekin. Harreman hori ezinbesteko tresna da, gobernantza ireki eta elkarlanean esparruan. Legealdiko lehenetsutako bat da herritarrekin eta lurraldeko gainerako eragile ekonomiko eta sozialekin etengabeko elkarrekintza bilatzea.

Herritarrek jardura publikoa urrun sumatzen dutela kontuan hartuta, ezinbestekoa da ahalegina egitea harreman ildo berriak abian jartzeko. Legealdi honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak duen erronka nagusietako bat da bere lana herritarrei gerturatzeko. Horretarako, betiko komunikazio kanalak zein tresna eta komunikazio sistema berriak erabiliko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak prozesuen ziletasuna sendotu nahi du eta herritarrek eragile politiko eta instituzionalengan duten konfiantza eta inplikazioa areagotu. Horretarako, uste du beharrezkoa dela herritarrek gertutik antzemango duten eta bizitza komunitarioaren garapenean herritarren parte hartzea erraztuko duen komunikazioari ekitea. Komunikazio egokia egitea gizarte modernoaren konplexutasunari ekiteko modu bat da eta, are gehiago, Gipuzkoan, non gizarteak komunitate zentzu indartsua duen eta non konpromisoa, parte-hartzea eta lurralde oreka balio nagusiak diren Gipuzkoako gizartearentzat.

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 13 de marzo de 2018, ha adoptado el siguiente Acuerdo:

Al comienzo de la actual legislatura 2015-2019 la Diputación Foral de Gipuzkoa elaboró el Plan Estratégico de Gestión concebido como el principal instrumento para el liderazgo en su acción de gobierno. El mismo establece, por un lado, los mecanismos de gobernanza que aseguren la eficacia en la implementación del Plan y, por otro lado, destaca, como característica prioritaria de su sistema de gobernanza, el alineamiento entre las políticas públicas y las metas colectivas del territorio.

Se plantea una visión renovada del futuro de Gipuzkoa que se ha de construir y compartir con el resto de agentes y personas del territorio y de su entorno. En este marco, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha lanzado la iniciativa Etorkizuna Eraikiz, que tiene por objetivo fortalecer la capacidad de Gipuzkoa para hacer frente a sus retos de futuro.

Abordar el Plan Estratégico de Gestión, así como la iniciativa Etorkizuna Eraikiz, exige abordar la relación y la comunicación con la ciudadanía del territorio. Esta relación constituye un elemento esencial, en el marco de una gobernanza abierta y colaborativa. La búsqueda de una interacción permanente con la ciudadanía y con el resto de los agentes económicos y sociales del territorio constituye una de las prioridades de la legislatura.

Hacer un esfuerzo para poner en marcha nuevas líneas de relación es esencial en momentos en los que la ciudadanía percibe con lejanía la acción pública. Uno de los principales desafíos de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la presente legislatura consiste en acercar su trabajo a la ciudadanía, utilizando para ello tanto los canales de comunicación tradicional como nuevas herramientas y sistemas de comunicación.

La Diputación Foral de Gipuzkoa quiere fortalecer la legitimidad de los procesos y aumentar el nivel de confianza e implicación de la ciudadanía respecto a los actores políticos e institucionales. Para ello, considera necesario abordar una comunicación que, siendo percibida con cercanía por la ciudadanía, facilite su participación en el desarrollo de la vida comunitaria. La existencia de una buena comunicación es una forma de abordar la complejidad de las sociedades modernas y, máxime, en Gipuzkoa, cuya sociedad tiene un fuerte sentido comunitario, donde el compromiso, la participación y el equilibrio territorial



constituyen valores nucleares para la sociedad guipuzcoana.

Etorkizuna Eraikiz ekimenak azken urtean izan duen aurrerapen nabarmenak ondorioak izango ditu, datozen urteetan, politika publikoetan eta lehen mailako erreferentzia zentroetan eta "Proiektu estrategikoak 2025" izeneko egitasmoan gauzatzen da. Bi maila desberdin ditu: proiektu estrategikoak eta proiektu esperimentalak, eta Gipuzkoa Taldean-en jarduerarekin ere jarraitzen da, gauzatu berri den Think-Tank delakoa delarik horren elementu nagusia.

Etorkizuna Eraikiz ekimena esperimentaziorako eta ekintzarako tresna gisa aurkezten da, eragileek parte hartzen duten etorkizunera begirako proiektuak abian jartze aldera. Proiektua hain da garrantzitsua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kanpaina bat sustatuko duela, erakundearen komunikazioaren esparruan, gipuzkoarrei Etorkizuna Eraikiz ekimenaren berri emateko, helburua baita herritarrek ekimen hori ezagutzea, haien konplizitatea bilatzeko.

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiari dagokio legealdirako gizarteratze eta komunikazio estrategia osoa zuzendu, sustatu eta egitea, eta, horretarako, publizitate guneak kontratatu behar ditu, bere jarduera ezagutzera emateko, lan horiek behar bezala egiteko baliabiderik ez duenez.

Kontratuaren helburua da Gipuzkoako Foru Aldundiaren kanpainak komunikatzeko bitartekoen estrategia planifikatu eta kudeatzea, bitarteko eta euskarrien konbinazio egokiena proposatuz eta Gipuzkoako eskualde guztientzat lurralde estaldura baliokide bat ziurtatuz. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtean zehar sustatzen dituen gizarteratze ekimenei laguntza emango zaie, baita Etorkizuna Eraikiz ekimenaren kanpainako mezuak zabaltzeari ere.

Helburu horrekin idatzi dira kontratu hori arautuko duten baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoaren agiriak. Agiri horien arabera, lizitazioaren oinarriko aurrekontua 1.640.000,00 eurokoa da (BEZa barne) eta lanak egiteko epea 2019ko irailaren 15era artekoa izango da. Luzapena eduki dezakeenez, balio zenbatetsia 2.710.743,80 euro da, BEZa kanpo, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak 101. artikuluan adierazten duen moduan.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

El avance sustancial que Etorkizuna Eraikiz ha experimentado en el último ejercicio se traducirá, en los próximos años, en políticas públicas y centros de referencia de primer orden y se materializa en los "Proyectos Estratégicos 2025", diferenciados en dos niveles: proyectos estratégicos y proyectos experimentales, junto con la continuación de la actividad de Gipuzkoa Taldean, en la que el Think-Tank que se acaba de formalizar constituye su elemento nuclear.

La iniciativa Etorkizuna Eraikiz se presenta como una herramienta de experimentación y acción de cara a poner en marcha proyectos enfocados en el futuro, donde participan diferentes agentes. Dada la envergadura del proyecto, con el objeto de darlo a conocer entre la ciudadanía y buscar su complicidad, la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el marco de su comunicación institucional, impulsará una campaña con la que tratará de dar a conocer Etorkizuna Eraikiz entre las y los guipuzcoanos.

La Dirección General de Comunicación tiene encomendada la dirección, impulso y elaboración de toda la estrategia de socialización y comunicativa para la legislatura, tarea para la que precisa de la contratación de espacios publicitarios en los que dar a conocer su actuación, dada la falta de medios propios para poder realizar adecuadamente dichos trabajos.

El objetivo del contrato es planificar y gestionar la estrategia de medios de la comunicación de las campañas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, proponiendo la óptima combinación de medios y soportes y asegurando una cobertura territorial equivalente para las diversas comarcas de Gipuzkoa. De esta forma, se dará soporte en las iniciativas de socialización que a lo largo del año promueve la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la difusión de los mensajes de la campaña de Etorkizuna Eraikiz.

A tal efecto, se han redactado los correspondientes pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas que regulan dicha contratación y que establecen para su ejecución un presupuesto base de licitación de 1.640.000,00 euros, IVA incluido, y una duración hasta el 15 de septiembre de 2019. Dado que puede ser objeto de prórroga, el valor estimado, a efectos de lo dispuesto en el artículo 101 de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público, resulta en un importe de 2.710.743,80 euros, IVA excluido.

Por consiguiente, a propuesta del diputado general, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación,



ERABAKI DU

Lehenengo.- Onartzea erregulazio harmonizatuaren mende dagoen BITARTEKO ETA KOMUNIKAZIO EUSKARRI DESBERDINETAN (PRENTSAN, IRRATIAN, TELEBISTAN, KALEAN ETA INTERNETEN) INFORMAZIO, PUBLIZITATE, KOMUNIKAZIO ETA GIZARTERATZE ELEMENTUEN PLANIFIKAZIOA ETA EROSKETA zerbitzuen kontratazio espedientea (2018013CO300). Lizitazioaren oinarriko aurrekontua 1.640.000,00 euro da, BEZa barne, balio zenbatetsia 2.710.743,80 euro da, eta lana burutzeko epea 2019ko irailaren 15era artekoa da.

Bigarren.- Onartzea aipatu zerbitzuen kontratazioa arautu behar duten baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen orriak.

Hirugarren.- Baimena ematea 1.640.000,00 euroko gastua egiteko, ondorengo kontu sailen kargura:

1.0130.300.227.03.03.2018: 1.140.000,00 euro
5.0130.300.227.03.03.2019: 500.000,00 euro

Laugarren.- Kontratua esleitzeko prozedura irekiari hasiera ematea, eta agintzea iragarkia argitara dadin Europar Batasuneko aldizkari ofizialean eta kontratatzailearen profilean.

Bosgarren.- Diputatu nagusiak kontratua esleitu, sinatu eta luzatu ahal izango du, hala behar izanez gero eta, horrez gain, kontratua behar bezala bete dadin, beharrezkoak diren egintza, erabaki eta ebazpen hartuko ditu.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki horren aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, BI HILABETEKO EPEAN, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka nahiz baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agirien aurka KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsioaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsioetarako Foru Auzitegi Administrazioari, iragarkia argitaratu edo orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 egun balioduneko epean. Bi kasuotan, ezingo

ACUERDA

Primero.- Aprobar el expediente de contratación sujeto a regulación armonizada de los servicios de PLANIFICACIÓN Y COMPRA DE ELEMENTOS INFORMATIVOS, PUBLICITARIOS, DE COMUNICACIÓN Y SOCIALIZACIÓN EN DISTINTOS MEDIOS Y SOPORTES DE COMUNICACIÓN (PRENSA, RADIO, TV, EXTERIORES E INTERNET) (2018013CO300), con un presupuesto base de licitación de 1.640.000,00 euros, IVA incluido, y un valor estimado de 2.710.743,80 euros, siendo el plazo de ejecución hasta el 15 de septiembre de 2019.

Segundo.- Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares y el de prescripciones técnicas que han de regir la contratación del citado servicio.

Tercero.- Autorizar un gasto de 1.640.000,00 euros, con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1.0130.300.227.03.03.2018: 1.140.000,00 euros
5.0130.300.227.03.03.2019: 500.000,00 euros

Cuarto.- Disponer la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato, y ordenar la publicación del correspondiente anuncio en el Diario Oficial de la Unión Europea así como en el perfil del contratante.

Quinto.- La adjudicación, formalización y en su caso, prórroga del contrato, se efectuará por el diputado general, quien además adoptará cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarias para la correcta ejecución del contrato.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer, previa y potestativamente, EL RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado el anuncio o se hayan recibido o puesto a disposición los



da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

pliegos. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial, o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostia, 2018ko martxoaren 22a / San Sebastián, 22 de marzo de 2018

Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako burua /
El Jefe de la Secretaría del Área del Diputado General

Sin.:/ Fdo.: Ander Arzelus Aramendi.